ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, PETRITEGIKO EDATEKO UREN ARAZTEGIKO ETA LOIOLAKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIKO LABORATEGIETARAKO MATERIALA HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA ZUZENTZEN DUENA

Donostia, 2022ko ekainaren 3a

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, PETRITEGIKO EDATEKO UREN ARAZTEGIKO ETA LOIOLAKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIKO LABORATEGIETARAKO MATERIALA HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA ZUZENTZEN DUENA

KARATULA

1. Erakunde kontratugilea eta kontratazio-organoa:

- Erakunde kontratugilea: Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. (AUSA).
- Kontratazio-organoa: AUSAren Administrazio Kontseilua.

2. AUSAren kontratatzailearen profilera sartzea:

AUSAren kontratatzailearen profilera sartu ahal izango da AUSAren *web-orritik* (**https://www.agasa.eus/es/transparencia/contratacion/perfil-contratante**) edo Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren *web-orritik* (**http://www.contratacion.euskadi.eus**)

3. Esparru-akordioaren lizitazio- eta esleipen-iragarkiak argitaratzearen gastuak:

(ez dago)

4. Esparru-akordioan onartzeko dokumentazioa aurkeztea:

- **Aurkezteko modua:** eskaintzak baliabide elektroniko bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren bidez hain zuzen ere. Honako helbide honetan dago: http://www.contratacion.euskadi.eus

- **Aurkezteko epea:** hogeita hamar egun natural, lizitazio-iragarkia bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

  Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

- **Hedabideak eta jakinarazpena:** kanpoan utzitako sektoreei buruzko Errege Lege Dekretuaren (SBELD) 61. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz (SPKLaren 61. artikuluan berariaz adierazita), kontratazio-prozedura honetan egingo diren komunikazioak eta jakinarazpenak agerraldi elektroniko bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez. Jakinarazpen bat edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, lizitatzaileak bidalketaren abisua jasoko du ondorio horretarako emandako abisuetarako helbide elektronikoan.

5. Esparru-akordioaren xedea:

Lizitatzaileek, laborategiko materialen hornidurarako esparru-akordioan onartuak izateko eskaera egin dezakete, ondorengo lote batera edo zenbait loterako:

Lotea	Xedea
1	Deltalab
2	Filter-Lab
3	BRAND
4	Bürkle
5	Eppendorf
6	HACH
7	Inorganic Ventures
8	Merck
9	Millipore
10	Panreac
11	Pobel
12	RADIOMETER
13	Reagecon
14	Supelco
15	VWR (R.D.)
16	Azlon
17	bioMérieux
18	Microkit
19	AccuStandard
20	Dr. Ehrenstorfer
21	Mettler Toledo
22	Soria-Greiner
23	Thermo Scientific
24	Hamilton
25	Crison
26	Agilent
27	Analytical jena
28	Celea
20	Difco
30	Gerstel
31	Idexx
32	Metrohm
33	MLE
34	Oxoid
35	Romil
36	FOSS TECATOR
37	Fluka
38	Absolute Standards
39	SPEXertificate®
40	Sterilin
41	Vidra-foc
42	VWR PROLABO
43	TESTO
44	Pyrex

45	ISOSTANDARDS
46	Scharlau
47	Chromacol
48	HANNA
49	ISC science
50	JASCO
51	PSA
52	Pronadisa
53	Starna
54	Biotage
55	Wellington Laboratories
56	Sigma-Aldrich

(**CPV: 33696500-0 Laborategiko erreaktiboak; 33790000-4 Laborategi, higiene edo farmaziarako beirazko artikuluak; 38437000-7 Labaorategirako pipetas eta osagarriak**)

6. Kontratazio-prozedura:

Prozedura irekia tramitatu ondoren, esparru-akordioan onartuko dira baldintza-agirian ezarritako betekizunak betetzen dituzten enpresak. Onartutako enpresekin esparru-akordioa sinatu ondoren, enpresa horiei eskatuko zaie zenbait materialen hornidura-kontratuak esleitzeko eskaintza ekonomikoa aurkeztea, eta kontratuak esleituko dira lote bakoitzeko eta urtebeterako. Bigarren fase hau errepikatuko da hasierako kontratuen eta ondorengoen indarraldia amaitzen denean, esparru akordioak irauten duen epealdi osoan.

7. Esparru-akordioaren eta kontratuen iraupena:

Esparru-akordioak hasiera batean bi urteko iraupena izango du, formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta AUSAk hiru alditan luzatu ahal izango du —aldi bakoitza bi urteko iraupenekoa—.
Kontratuek urtebeteko iraupena izango dute eta luzatzeko aukerarik gabe.

8. Urteko kontsumo zenbatetsia:

Lote bakoitzeko materialei dagokien unitateak 4 Eranskinean jasota daude. Edozein kasutan, kantitateak adierazten dira soilik modu orientatzailean eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko helburuarekin.

9. Lote bakoitzeko urteko balio zenbatetsia:

Lotea	Urteko balio zenbatetsia (€/lotea, BEZa kanpo)
1	3.686,10 €
2	5.803,95 €
3	4.923,96 €
4	1.060,48 €
5	21.096,72 €
6	35.360,49 €
7	2.207,76 €
8	22.612,12 €
9	15.057,25 €
10	26.781,91 €
11	1.413,18 €
12	3.500,00 €
13	14.611,33 €
14	5.869,75 €
15	8.460,12 €
16	1.565,46 €
17	1.888,45 €
18	1.012,00 €
19	2.832,85 €
20	2.542,76 €
21	7.951,60 €
22	2.149,82 €
23	11.653,51 €
24	2.179,34 €
25	3.578,95 €
26	12.596,88 €
27	4.171,16 €
28	1.413,95 €
20	438,38 €
30	11.557,51 €
31	31.800,04 €
32	17.273,94 €
33	3.049,58 €
34	5.181,40 €
35	4.053,17 €
36	1.610,73 €
37	550,28 €
38	4.948,02 €
39	582,12 €
40	800,42 €
41	8.740,29 €
42	1.595,60 €
43	521,48 €
44	8.187,72 €
45	595,46 €
46	1.219,04 €
47	1.092,00 €

48	1.639,68 €
49	260,00 €
50	220,00 €
51	560,00 €
52	320,00 €
53	1.430,00 €
54	1.957,00 €
55	750,00 €
56	16.984,65 €
GUZTIRA (urtea)	**355.900,31 €**
GUZTIRA	**2.847.202,52 €**

10. Esparru-akordioa onartzeko kaudimena:

Esparru-akordioan onartuko badira, lizitatzaileek laborategiko materialen horniduraren arloko negozio-bolumen jakin bat izan beharko dute —bolumen hori izango da eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldirik onenari dagokion bolumena, betiere enpresaburuak jarduerari hasiera eman zion dataren edo eratze-dataren eta eskaintzak aurkezten diren dataren arabera—. Negozio-bolumen hori, gutxienez, aurkezten den lotearen edo lote multzoaren urteko balio zenbatetsia 1,5 aldiz izango da.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA, PETRITEGIKO EDATEKO UREN ARAZTEGIRAKO ETA LOIOLAKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIRAKO LABORATEGIKO MATERIALAK HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA ZUZENTZEN DUENA

Aurkibidea

Orr.

1. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. Xedea eta esleipen-prozedura 1
2. Araubide juridikoa eta jurisdikzioa 1
3. Erakunde kontratugilea eta kontratazio-organoa 2
4. Esparru-akordioaren eta kontratuen iraupena 3
5. Esparru-akordioaren balio zenbatetsia 3

2. kapitulua. Esparru-akordioa

6. Esparru-akordioa onartzeko betekizunak 5
   6.1. Ahalmena 5
   6.2. Kaudimena 5
7. Publizitatea 6
8. Dokumentazioa aurkeztea 6
   8.1. Agirietara eta gainerako dokumentazio osagarrira sartzea 6
   8.2. Aurkezpen-baliabideak 6
   8.3. Fitxategi elektroniko bakarraren edukia 7
9. Dokumentazioa irekitzea eta esparru-akordioan onartzea 9
10. Esparru-akordioa formalizatzea 9
11. Esparru-akordioa aldatzea 9
12. Esparru-akordioa deuseztatzea 10

3. kapitulua. Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak

13. Kontratuak esleitzeko prozedura 10
   13.1. AUSAk eskaera bidaltzea 10
   13.2. Enpresek eskaintza ekonomikoa aurkeztea 11
   13.3. Kontratuak esleitzea 12
14. Kontratuak formalizatzea 12
15. Kontratuak egikaritzea 12
16. Prezioa ordaintzea 14
17. Enpresa kontratisten erantzukizuna 14
18. Enpresa kontratisten betebeharrak 15
19. Zehapenak 15
   19.1. Berandutzeagatik 15
   19.2. Zehapenak ordaintzea 16
20. Harrera eta berme-epea 16
21. Kontratuak deuseztatzea 16
   21.1. Suntsiarazteko kausak 16
   21.2. Suntsiaraztearen ondorioak 17

Eranskinak

1. Parte hartzeko eskaera
2. Erantzukizunpeko adierazpena
3. Adierazpenen notario-aktaren eredua, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi badu, esparru-akordioan onartzeko eskatutako kaudimena egiaztatzeko.
4. Lote bakoitzaren materialen unitateak

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA, PETRITEGIKO EDATEKO UREN ARAZTEGIRAKO ETA LOIOLAKO HONDAKIN UREN ARAZTEGIRAKO LABORATEGIKO MATERIALAK HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA ZUZENTZEN DUENA

1. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. Xedea eta esleipen-prozedura

Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren terminoen eta baldintzen arabera, esparru-akordio bat sinatu nahi da zenbait hornitzailerekin, eta, ondoren, akordio horretan oinarritutako hornidura-kontratu zehatzak esleitu nahi dira, baldintza-agiriko karatulako 5. puntuan adierazitako loteetarako.

Esparru-akordioa prozedura ireki bidez esleituko da. Ondorio horretarako, lizitatzaileek esparru-akordioko lote batean, batzuetan edo guztietan parte hartzea eskatu ahal izango dute. AUSAk baldintza-agirian aurreikusitako onarpen-baldintzak betetzen dituzten lizitatzaileak hautatuko ditu, eta haiekin sinatuko du esparru-akordioa. Esparru-akordioan onartzea eskatzean, enpresek ez dute eskaintza ekonomikorik aurkeztu beharko, eta nahikoa izango da baldintza-agiri honen 9. baldintzan adierazitako dokumentazioa aurkeztea.

Onartutako enpresekin esparru-akordioa sinatu ondoren, laborategiko materialen hornidura-kontratuak lizitatuko dira. Horretarako, esparru-akordioa sinatu duten enpresa guztiei eskatuko zaie sinatutako lotea edo loteak hornitzeko eskaintza ekonomikoa aurkeztea, eta lote bakoitzarentzat guztizko preziorik baxuena aurkezten duen enpresari esleituko zaio kontratua. Ondorengo kontratuak ere modu berean esleituko dira, esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean.

Nahiz eta esparru-akordioaren indarraldian zehar kontratu bat baino gehiago esleitu (bat lote bakoitzeko), baldintzen agirian enpresa esleipendunak edo kontratistak aipatzen direnean singularrean edo pluralean egiten da.

2. Araubide juridikoa eta jurisdikzioa

Esparru-akordioa prestatzeari eta esleitzeari dagokienez, Administrazio Baldintza Partikularren eta Preskripzio Teknikoen Agiriak (aurrerantzean, ABPA) arautzen du esparru-akordioa.

ABPAn aurreikusten ez denari dagokionez, esparru-akordioak otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren xedapenei jarraitzen die —3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak (aurrerantzean SBELD)—.

Esparru-akordioaren ondorioei, betetzeari eta deuseztatzeari dagokienez, berriz, ABPAk eta sinatzen den esparru-akordioak berak zuzentzen dute esparru-akordioa, eta, dokumentu horietan aurreikusi ez den orotan, SBELDan eta zuzenbide pribatuan ezarritako arauek.

Esparru-akordioari Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea aplikatuko zaio soil-soilik Administrazio Baldintza Partikularren Agiriak arau horretara berariaz igortzen duenean —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL)—.

Esparru-akordioak, halaber, bete beharko du kontratatutako erreaktiboaren edo polielektrolitoaren hornidurari aplikatzekoa zaion sektoreko araudia.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du lizitazioaren garapenari eta, oro har, esparru-akordioaren prestaketa eta esleipen faseari buruzko auziak ebazteko eskumena, baita aldaketei buruzko auziak ebazteko eskumena ere, baldin eta SBELDaren 110. eta 111. artikuluetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz aurkaratzen bada aldaketa. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, dagokion erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari, SBELDaren 119. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Honako xedapen hauek zuzenduko dituzte esparru-akordioan oinarrituta esleitzen diren kontratuak, haien prestakuntzari eta esleipenari dagokienez: ABPAk, sinatutako esparru-akordioak eta AUSAk enpresei bidaltzen dien eskaintza ekonomikoaren eskaerak. Dokumentu horietan aurreikusi ez den orotan, SBELDan ezarritako arauei jarraituko zaie.

Honako xedapen hauek zuzenduko dituzte kontratuak, kontratuen ondorioei, betetzeari eta deuseztatzeari dagokienez: ABPAk, sinatutako esparru-akordioak, enpresa esleipendunek aurkeztutako eskaintza ekonomikoak eta AUSAk agindutako material-eskaerak. Dokumentu horietan aurreikusi ez den orotan, SBELDan eta zuzenbide pribatuan ezarritako arauei jarraituko zaie.

Kontratuek, halaber, horniduraren xedeari aplikatzekoa zaion sektoreko araudia bete beharko dute.

Jurisdikzioari dagokionez, kontratuei aplikatuko zaie baldintza honetan esparru-akordiorako aldez aurretik ezarritakoa, betiere SBELDan aurreikusitakoarekin bat etorriz, haien zenbatekoaren arabera.

3. Erakunde kontratugilea eta kontratazio-organoa

Añarbeko Urak SA (aurrerantzean, AUSA) da erakunde kontratugilea, eta haren titulartasuna Añarbeko Uren Mankomunitateari dagokio.

AUSAren Administrazio Kontseilua da esparru-akordioa esleitzeko eta esparru-akordioan oinarrituta egiten diren kontratuak esleitzeko eskumena duen kontratazio-organoa, eta, aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauen arabera, egokitzat jotzen

dituen pertsonei berariazko ahalmena eman ahal izango die jarduera jakin batzuk egikaritzeko.

4. Esparru-akordioaren eta kontratuen iraupena

Esparru-akordioak bi urteko iraupena izango du hasieran, formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita.

AUSAk bi urteko hiru alditan luzatu ahal izango du esparru-akordioa. AUSAk bere kabuz erabakiko du luzapena, eta formalizatutzat joko da enpresa sinatzaileek dagokion esparru-akordioa jasotzen dutenean. Jakinarazpen hori indarrean dagoen esparru-akordioaren iraupen-epea baino bi hilabete lehenago egin beharko du AUSAk, eta harpidedunek bete egin beharko dituzte akordioa eta, indarrean dagoen bitartean, hura arautzen duen agiria, baita luzapenak ere.

Esparru-akordioaren baitan esleitzen diren kontratuen iraupena urte batekoa izango da. Esleitutako lehen kontratuen indarraldia 2023ko martxoaren 1ean hasiko da. Hurrengo kontratuen indarraldia urte bakoitzeko martxoaren 1etik aurrera hasiko da.

Kontratuak ez dira inola ere luzatuko.

Esparru-akordioaren indarraldia amaitzen denetik esleitutako azken kontratuetara bitartean denbora-tarte bat egongo dela kontuan hartuta, zehaztu beharko da kontratu horiek ABPAn eta esparru-akordioan aurreikusitakoari jarraituko diotela.

5. Esparru-akordioaren balio zenbatetsia

Esparru-akordioaren guztizko balio zenbatetsia, lote guztietarako eta esparru-akordioaren gehieneko iraupenerako (zortzi urte) kalkulatua, 2.847.202,52 eurokoa da, BEZa gabe. Balio hori kalkulatu da lote guztien balio zenbatetsia zortzi urtez biderkatuz (355.900,31 € x 8 = 2.847.202,52 €).

Aipaturiko balio zenbatetsia (hala nola ABPAren karatulako 8 puntuan adierazten diren kontsumo-unitateak) ez da AUSArentzat inolako gutxieneko gastua egiteko konpromisorik. Soilik ordaindu dira benetan egin diren hornidurak -AUSAren beharren arabera- dagozkien kontratuak burutzerakoan.

Lotea	Produktua	Urteko balio zenbatetsia (BEZa kanpo)
1	**Deltalab**	3.686,10 €
2	**Filter-Lab**	5.803,95 €
3	**BRAND**	4.923,96 €
4	**Bürkle**	1.060,48 €
5	**Eppendorf**	21.096,72 €
6	**HACH**	35.360,49 €
7	**Inorganic Ventures**	2.207,76 €
8	**Merck**	22.612,12 €

9	**Millipore**	15.057,25 €
10	**Panreac**	26.781,91 €
11	**Pobel**	1.413,18 €
12	**RADIOMETER**	3.500,00 €
13	**Reagecon**	14.611,33 €
14	**Supelco**	5.869,75 €
15	**VWR (R.D.)**	8.460,12 €
16	**Azlon**	1.565,46 €
17	**bioMérieux**	1.888,45 €
18	**Microkit**	1.012,00 €
19	**AccuStandard**	2.832,85 €
20	**Dr. Ehrenstorfer**	2.542,76 €
21	**Mettler Toledo**	7.951,60 €
22	**Soria-Greiner**	2.149,82 €
23	**Thermo Scientific**	11.653,51 €
24	**Hamilton**	2.179,34 €
25	**Crison**	3.578,95 €
26	**Agilent**	12.596,88 €
27	**Analytical jena**	4.171,16 €
28	**Celea**	1.413,95 €
29	**Difco**	438,38 €
30	**Gerstel**	11.557,51 €
31	**Idexx**	31.800,04 €
32	**Metrohm**	17.273,94 €
33	**MLE**	3.049,58 €
34	**Oxoid**	5.181,40 €
35	**Romil**	4.053,17 €
36	**FOSS TECATOR**	1.610,73 €
37	**Fluka**	550,28 €
38	**Absolute Standards**	4.948,02 €
39	**SPEXertificate®**	582,12 €
40	**Sterilin**	800,42 €
41	**Vidra-foc**	8.740,29 €
42	**VWR PROLABO**	1.595,60 €
43	**TESTO**	521,48 €
44	**Pyrex**	8.187,72 €
45	**ISOSTANDARDS**	595,46 €
46	**Scharlau**	1.219,04 €
47	**Chromacol**	1.092,00 €
48	**HANNA**	1.639,68 €
49	**ISC science**	260,00 €
50	**JASCO**	220,00 €
51	**PSA**	560,00 €
52	**Pronadisa**	320,00 €
53	**Starna**	1.430,00 €

54	**Biotage**	1.957,00 €
55	**Wellington Laboratories**	750,00 €
56	**Sigma-Aldrich**	16.984,65 €
GUZTIRA		355.900,31 €

2. kapitulua. Esparru-akordioa

6. Esparru-akordioa onartzeko betekizunak

Esparru-akordioan onartuko dira jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoak, espainiarrak zein atzerritarrak, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren karatulako 10. puntuan eskatzen den kaudimena dutela egiaztatzen badute.

6.1. Ahalmena

Pertsona juridikoak esparru-akordioaren esleipendun izan ahal izango dira, baina soilik esparru-akordio horren prestazioak haien estatutuen edo eratze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan badaude.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren mende dagoen jarduera edo prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Enpresaburuen elkarteek kontratua egin ahal izango dute erakunde kontratugilearekin; horretarako, aldi baterako eratzen den enpresaburuen aldi baterako elkartea eratu beharko dute. Ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haien alde esleitzen den arte. Aldi baterako elkartea osatzen duten enpresaburuek elkarte hori osatzen dutenen izenak, inguruabarrak eta parte-hartzea adierazi beharko dituzte, baita, kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formaltasunez eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere. Hori guztia SBELDaren 31. artikuluan aurreikusten diren baldintzetan egingo dute.

6.2. Kaudimena

Esparru-akordioan onartuko badituzte, enpresek Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren karatulako 10. puntuan adierazitako kaudimena dutela egiaztatu beharko dute.

Eskatutako kaudimena egiaztatzeko garaian, lizitatzaileek beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi badute —haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein izanik ere—, frogatu beharko dute kontratuaren indarraldi osoan izango dituztela benetan erabilgarri kaudimen eta/edo baliabide horiek, baita baliatzen duten erakundeak ez duela kontratatzeko debekurik ere.

Ondorio horietarako, notarioaren aurrean emandako Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren eranskinetan jasotako ereduaren araberako idazkia aurkeztu beharko diote lizitatzaileek notarioari. Idazki horretan, inplikatutako enpresek adierazi beharko dute ezagutzen dutela zer baldintza dituen lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioak, eta erantsi beharko dute eskatutako kaudimena ere badutela —hori

egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dituzte, Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren 9. baldintzan aurreikusitako moduan—. Era berean, esleipendun izanez gero, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak lizitatzailearen esku jartzeko borondate ezeztaezina dutela eman beharko dute aditzera (berariaz onartuko da Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta AUSAk berariaz baimendu beharko du hura ordeztea edo aldatzea). Idazki hori aurkeztu eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada, AUSAk konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu.

Eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira baldintza honetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak, eta kontratua perfekzionatzeko unean iraun beharko dute inguruabar horiek.

7. Publizitatea

Esparru-akordioaren lizitazioa eta formalizazioa Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta AUSAren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, SBELDaren 78. eta 79. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, hurrenez hurren.

Esparru-akordioaren esleipena AUSAren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen esleipena egiten den hiru hilekoaren ondorengo hogeita hamar egunetan argitaratuko da, SBELDaren 79.3. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Era berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da SBELDaren 74. artikuluan zerrendatzen den gainerako informazioa.

AUSAren kontratatzailearen profilera sartu ahal izango da AUSAren web-orritik (https://www.agasa.eus/es/transparencia/contratacion/perfil-contratante) edo Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren web-orritik (http://www.contratacion.euskadi.eus).

8. Dokumentazioaren aurkezpena

8.1. Agirietara eta gainerako dokumentazio osagarrira sartzea

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri izango dira lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik, eta proposamenak AUSAren kontratatzailearen profilean aurkezteko epe osoan egongo dira eskuragarri.

8.2. Aurkezpen-baliabideak

Proposamenak baliabide elektroniko bidez aurkeztuko dira, SBELDaren 61. artikuluan eta SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 1. puntuan ezarritako betekizunen arabera.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko behar diren zehaztapen teknikoak eta informazioa —data baliozkotzea eta zifratzea barne— Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren web-orrian daude adierazita, honako helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus**.**

Eskaintzak bi fasetan bidali ahal izango dira baliabide elektroniko bidez: lehenik, eskaintzaren aztarna elektronikoa transmitituko da —hura jasota eskaintza aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako—, eta ondoren, eskaintza bera bidaliko da, baina gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egin ezean, eskaintzan atzera egin dela ulertuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu multzo jakin bat da; datu horiek sortzeko prozesuak bermatuko du datu horiek argi eta garbi lotzen direla eskaintzaren beraren edukiarekin, eta aukera emango dute eskaintzaren edukian gerta daitezkeen aldaketak detektatzeko, haren integritatea bermatuz. Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek dokumentu horien kopia konpultsatuen ondorio eta balio bera izango dute —dokumentu horiek jasotzeko gaitutako organoaren sinadura elektroniko aitortuarekin kautotutako kopia elektronikoak izango dira—.

8.3. Fitxategi elektroniko bakarraren edukia

Lizitatzaileek fitxategi elektroniko bakarra barnean hartu beharko dute, eta fitxategi horrek eduki hau izango du:

1. Esparru-akordioan onartzearen eskaera, Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren 1. eranskinaren arabera.

2. Lizitatzailearen eta haren ordezkaritzaren jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak (*aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek egin badute proposamena, elkarte hori osatu behar duten enpresa guztiei buruzkoa izango da dokumentazio hori*):

    - Pertsona juridiko diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eratze-eskrituraren edo -dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo eratze-egintzaren bidez. Eskritura edo agiri horietan jasoarazi beharko dira enpresaburuen jarduera gidatzen duten arauak, eta, hala badagokio, behar bezala erregistratuta egongo dira dagokion erregistro publikoan, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

    - Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatuko da enpresaburu horiek ezarrita dauden Estatuko legeriari jarraituz dagokien erregistroan inskribatuta egotearen bidez, edo zinpeko adierazpen baten bidez edo ziurtagiri baten bidez, betiere aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

    - Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostenaren bidez egiaztatuko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-esparruko bulego kontsularraren txostenaren bidez. Txosten horren bidez justifikatu beharko da, halaber, Espainiako enpresek ere atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuan parte har dezaketela Administrazioko eta sektore publikoko kontratazioetan, baita SBELDaren 5. artikuluan zerrendatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko entitateekin, organismoekin edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan ere, eta antzeko moduan egin dezaketela.

    - Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna dagokion estatuko Nortasun Agiri Nazionala edo baliokidea aurkeztuta egiaztatuko da.

- Beste pertsona baten izenean bertaratzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako behar besteko ahalordea ere. Ordezkatutako enpresa pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta agertu beharko da —baldin eta hala eskatzen bada Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan horretarako aurreikusitakoaren arabera—.

3. Lizitatzailea SPKLaren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean sartuta ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren 2. eranskinaren arabera (SBELDaren 30. artikuluak berariaz igorrita).

4. Lizitatzailea indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

5. Karatulako 10. puntuan eskatutako ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa:

   Lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:

   - Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuak, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen bidez eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

   - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio-bolumena adierazten duena.

6. Adierazpenen notario-akta, Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren 3. eranskinaren araberakoa, baldin eta lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi badu, esparru-akordioan onartzeko eskatutako kaudimena egiaztatzeko.

7. Atzerriko enpresen erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena, batetik, Espainiako maila guztietako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla esparru-akordiotik edo kontratuetatik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, bestetik, dagokien atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela, hala badagokio.

AUSAk beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko eskubidea —lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa eta zehatza dela egiaztatzeko edo haren edukia argitzeko helburu hutsarekin—.

Oharra:

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek indarrean dagoen inskripzioaren ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute, 9.

baldintza honetako 2., 3. eta 4. puntuetan eskatutako agirien ordez. Ziurtagiri horrekin batera, ziurtagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adierazten duen lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

9. Dokumentazioa irekitzea eta esparru-akordioan onartzea

Esparru-akordioan onartzeko dokumentazioa aurkezteko epea amaitu ondoren, AUSAko langileek fitxategia ireki eta aurkeztutako dokumentazioa berrikusiko dute. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak edo omisioak antzemanez gero, lizitatzaileak gehienez ere hiru egun balioduneko epea izango du akats edo omisio horiek zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio behin betiko baztertuta geratuko dela ez badu dokumentazioa emandako epean zuzentzen.

Ondoren, Administrazio Baldintza Partikularren Agirian lote bakoitzari dagokionez ezarritako gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen dituzten lizitatzaileak esparru-akordioan onartzeko proposamena helaraziko diote AUSAko langileek kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak, AUSAko langileen proposamena ikusita, lizitatzaile horiek esparru-akordioan onartzea erabakiko du (lote bakoitzean bat edo batzuk, kasu bakoitzaren arabera).

Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta esparru-akordioan onartutako lizitatzaileei onarpena jakinaraziko zaie, eta onartu ez direnei ere emango zaie horren berri.

10. Esparru-akordioa formalizatzea

Esparru-akordioa formalizazioaren bidez perfekzionatuko da.

Esparru-akordioa agiri pribatu batean formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen denetik hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren.

Esparru-akordioa formalizatzen den unean, esleipendunek Administrazio Baldintza Partikularren Agiria ere sinatu beharko dute, eta agiri horrek kontratu-izaera izango du.

Administrazio Baldintza Partikularren Agiriaren eta kontratu-dokumentuetako edozeinen artean desadostasunak badaude, Administrazio Baldintza Partikularren Agiria nagusituko da, horietan jasotzen baitira esparru-akordioa sinatu duten alderdiek beren gain hartu dituzten eskubideak eta betebeharrak.

11. Esparru-akordioa aldatzea

Kontratazio-organoak esparru-akordioa aldatu ahal izango du, SBELDaren 111. artikuluan aurreikusitako kasuetan.
Hala dagokionean, esparru-erabakiaren aldaketa SBELDaren 112. artikuluan jasotako moduan argitaratuko da.

12. Esparru-akordioa deuseztatzea

Kontratu-betebeharrak ez betetzea kontratua deuseztatzeko kausa izango da, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baita Administrazio Baldintza Partikularren Agirian eta SBELDaren 113. artikuluan aurreikusitako edozein kausa ere. Esparru-akordioa deuseztatzen bada enpresa bati egotz dakiokeen kausa batengatik, enpresa horri dagokionez soilik izango ditu ondorioak deuseztapen horrek, eta indarrean jarraituko du, oso-osorik, AUSArekin esparru-akordioa sinatu duten gainerako enpresei dagokienez.

3. kapitulua. Esparru-akordioan oinarritutako kontratuak

13. Kontratuak esleitzeko prozedura

13.1. AUSAk eskaera bidaltzea

Esparru-akordioa sinatu ondoren eta, honek irauten duen bitartean, AUSAk eskaintza ekonomikoak eskatuko ditu laborategiko materialak hornitzeko kontratu bakoitza esleitzeko helburuarekin (kontratu bat lote bakoitzarentzat eta urte baterako).

Edozein kasutan, eskaintza-eskaera egin aurretik, Esparru-akordioa sinatu duten enpresei eskatuko die AUSAk loteetako edukietan aldatu diren produktuen edo zaharkituak geratu diren produktuen erreferentziak adieraz ditzatela, eta hura eguneratu dezatela, eskaintza egitea eragotziko lukeen akatsik balego.

Horrela, eta informazio hori jaso ondoren, AUSAk igorriko dio enpresa bakoitzari Eusko Jaurlaritzaren aplikazio elektronikoaren bidez agerraldi elektronikoa eginez (lizitatzaileek adierazitako posta elektronikora igorriko dena), eskaintza eskaera bat eduki honekin:

- Lote bakoitzarentzat: lote honetatik urte batean kontsumituko direla aurreikusten diren produktuak (ez du esan nahi AUSAk derrigorrez gastu edo kontsumo hori egingo duenik).

- Produktu horien gehieneko prezio unitarioa (BEZa kanpo).

- Lotearen gehieneko prezioa (kontsumitzea espero den produktu bakoitzari dagokion prezio unitarioa aplikatuz lortzen dena)

  Enpresei emango zaizkien datuak zehazterakoan, mota bereko kontratuak aurreko hamabi hilabetetan izan zuen balioa hartuko da erreferentzia gisa, dagozkion egokitzapenekin (kantitatea edo balioa), SBELDaren 4.10.a) artikuluan xedatzen denaren arabera.

  Enpresek euren eskaintzetan ezingo dute gainditu AUSAk bidalitako eskaeran adierazten diren prezio unitariorik.

  Zehaztutako gehieneko guztizko prezioak ez du esan nahi AUSAk gutxieneko gastu bat egingo duenik, soilik sortuko du obligazioa eta ordainduko dira esleitutako kontratuen baitan egiten diren hornidurak. AUSAk ez du inolako konpromisorik lote bakoitzetik gutxieneko unitate kopuru bat erosteko ezta ere gutxieneko kontsumo bat egiteko. Kontsumituko den laborategiko materialen kantitatea izango da AUSAk, bere

beharren arabera, enpresa kontratistei eskatuko diena eta jasoko duena, kontratu bakoitzak iraungo duen urtean zehar. AUSAk ez du eskaera kopuru minimorik egiteko obligaziorik, ez kantitate minimorik eskatzeko.

- Eskaintzak aurkezteko data.

13.2. Enpresek eskaintza ekonomikoa aurkeztea

Eskaera jaso ondoren, eta bertan adierazitako gehieneko epean, esparru-akordioa sinatu duten enpresek beren eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko dute Eusko Jaurlaritzaren aplikazioaren bidez. Aplikazio hori honako helbide honetan dago: http://www.contratacion.euskadi.eus.

Esparru-akordioa sinatzen duten enpresek aurkeztu beharko dute bere eskaintza esparru akordioan esleitu zaien lote bakoitzarentzat, eta horretarako AUSAk eskuragarri jarriko dien formularioa erabili beharko dute.

Eskainitako prezio unitarioan barnean hartuko dira: lote bakoitzaren produktuen prezioa, produktu ezberdinen prezio totala (produktu unitate kopuruarentzat AUSAk balioetsitako prezioa aplikatuz) eta lotearen kostu totala (kontsumitzea aurreikusi diren produktu ezberdinen prezio totalen batura). Eskaintzen diren prezioetan jasota egongo dira hornidura gauzatzerakoan egon daitezkeen kostu guztiak (industria-mozkina eta gastu orokorrak, tasak, kontserbazio- eta mantentze-gastuak, garraioa eta entrega, etab.), salbuespen bakarra BEZa da.

Prezioak euro zentimotan (bi dezimalekin) adieraziko dira. Lotearen produktu guztien prezioak eskaini beharko dituzte enpresek.

Eskaintza ekonomikoak baztertuak izango dira, bertan eskaintzen duten prezioren batek AUSAk adierazitako edozein gehieneko prezio unitarioa gainditzen badu.

Bestalde, eskaintza* proportzioz kanpokoa edo anormala dela ulertuko da, proposamen guztien batezbesteko aritmetikoa 20 unitate portzentualetan edo gehiagotan gutxitzen duen eskaintza.

**Helburu honekin eskaintza gisa hartuko da, eskaintzen diren prezio unitarioen batura lote bakoitzeko produktuen urteko kontsumo zenbatetsiarekin biderkatuz.*

Puntuazio hoberena lortu duen lizitatzailearen eskaintza oso baxua dela uste bada, aipatu diren parametroak kontuan izanik, AUSAko langileek SBELDaren 69 artikuluan aurreikusten den prozedura jarraituko dute, hau da, lizitatzaileak bidezko justifikazioak egin ditzan.

Dena den, kontratazio organoak baztertu egingo ditu oso baxuak direla egiaztatzen dituen eskaintzak azpikontratazioaren araudia urratzen dutelako, edo aplikagarri diren obligazioak betetzen ez dituztelako: ingurumen arloan, gizarte edo lan arloan (nazio mailan edo nazioartean), edo indarrean dauden lan hitzarmen kolektiboak betetzen ez dituztelako.

13.3. Kontratuak esleitzea

Eskaintza ekonomikoak aurkezteko epea amaiturik, eta horiek aztertu ondoren, AUSAko langileek esleipenerako proposamen-txostena egingo dute, lote bakoitzarentzat prezio baxuena duen eskaintza identifikatuz.

Aipaturiko esleipenerako proposamen-txostena ikusirik, kontratazio organoak esleituko ditu hornidura-kontratuak lote bakoitzarentzat, urte baterako, eta esleipendun enpresei eta gainontzeko lizitatzaileei emango zaie esleipenaren berri.

Kontratu bakoitza esleitu aurretik, lote bakoitzarentzat hautatuak izan diren esleipendunek aurkeztu beharko dute, AUSAk eskatzen duenean, ondorengo dokumentazioa:

- Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Edozein dela arrazoia eta edozein dela lotea, esparru-akordioa sinatu zuten enpresek ez balute eskaintzarik aurkeztuko edo aurkeztutako eskaintza guztiek lizitazioan adierazitako gehieneko prezioaren gainetik egongo badira, hornidura-kontratua edo kontratuak esleitzeko prozedura hutsik deklaratuko da, eta Esparru-Akordioa sinatu zuten enpresei berriro ere eskaintza ekonomikoa aurkezteko eskatuko zaie (agiri honetako 13.1 atalean zehazten den prozedura jarraituz).

13. Baldintza honetan (13.1, 13.2 eta 13.3) deskribatzen den esleipen-prozedura urtero errepikatuk da, esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean.

14. Kontratuak formalizatzea

SBELDaren 73.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, kontratuak esleipenarekin perfekzionatuko dira, eta ez da kontratu-dokumenturik formalizatu beharko, eta ez da beharrezkoa izango artikulu horren 2. zenbakian aurreikusitako 15 egun balioduneko epea betetzea.

Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen esleipena egiten den hiru hilekoaren ondorengo hogeita hamar egunetan argitaratuko da, SBELDaren 79.3. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen kausengatik ezin bada dagokion kontratua perfekzionatu, AUSAk hurrengo enpresari esleitu ahal izango dio kontratua, eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera.

15. Kontratuak egikaritzea

Kontratu bakoitza egikaritzean zorroztasunez lotu beharko zaie Administrazio Baldintza Partikularren Agiriari, esparru-akordioari, esleipendunaren eskaintzari, AUSAk egindako eskaerei, AUSAk kontratuaren interpretazio teknikoan kontratistarentzat emandako jarraibideei eta kasuan kasuko produktuak bete beharreko araudiari.

Laborategiko materialaren hornidura egingo da dagokion kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistari egingo zaizkion eskaeren bidez, AUSAren beharren arabera. Eskaerak posta elektronikoz egingo dira non hornitu behar diren produktuak adieraziko diren (mota eta unitate kopurua) eta zein laborategian entregatu behar den.

Eskaera bat entregatzeko gehieneko epea hemezortzi egunekoa izango da (igandeak eta jai egunak eta larunbatak kanpo), AUSAk igorritako posta elektronikoa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

Kontratisten arriskuan eta menturan egikarituko dira kontratuak.

AUSAk edozein unetan eta edozein bitarteko erabiliz kontrolatu, egiaztatu, gainbegiratu eta ikuskatu ahal izango du kontratistak hornidura behar bezala egikaritzen duela.

Dagokion kontratistaren kontura izango dira AUSAren eskaera bati erantzuten zaiola bermatzeko egin behar dituen gastu guztiak, baita erreaktiboaren edo polielektrolitoaren ekoizpenean gerta daitezkeen ustekabeko geldialdiak daudenean sortzen diren gastuak, lehengaien eskuragarritasunean arazoak daudenean sortzen diren gastuak eta ustekabeko edo ezinbesteko beste edozein kasutan sortzen diren gastuak ere.

Kontratisten kontura izango dira, halaber, laborategiko materiala garraiatzea eta hornidura-puntuan entregatzea. Produktuaren fabrikatzaileak gomendatzen duen baldintzetan egingo da garraioa.

AUSAri produktua entregatu aurretik nolabaiteko galera edo kaltea izango balu enpresa kontratistak ez du eskubiderik kalte-ordainik kobratzeko.

Produktuak entregatuko dira eskaeran adierazitako laborategian: Petritegiko EUTEko laborategian (Petritegi pasealekua, z.g.- Astigarraga 20015) edo Loiolako HUAko laborategian (Hipika idea 70 – Donostia 20014).

Kontratistak biltegiratuta eduki beharko du AUSAk eskatzen dion produktu kantitatea, batez ere, segurtasun arrazoiak direla medio biltegiratze baldintza bereziak behar dituzten produktuak; hala nola, etengabe erabiltzen diren produktuak, kontratua indarrean dagoen epealdian gerta daitezkeen larrialdietarako.

AUSAk eska diezaioke enpresa esleipendunari loteari dagokion markako edozein produktu hornitzea, eta enpresa derrigortua dago hura hornitzera lehen adierazi den gehieneko epean.

AUSAk eska diezaioke dokumentazioa enpresa esleipendunari edozein unetan kontratua indarrean dagoen bitartean, non egiaztatuko den materiala ekoizterakoan eta banatzerakoan dagozkion kalitate-sistemak jarraitu direla. Eskatutako dokumentazioa entregatzen ez den bitartean ez da ordainketarik egingo.

Material batetik unitate bat baino gehiago eskatzen bada, eta AUSAk horrela eskatuko balu, unitate guztiak produktuaren “lote” berdinekoak izango dira, beti ere hori posible denean.

Produktu mota bakoitzaren iraungitze data ahalik eta altuena izango da; data hori behar ez duten produktuak salbuetsita egongo dira.

Kontratistak Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak eta dagozkion segurtasun-arauak bete beharko ditu, dagokion kontratuaren mende dauden prestazioetan lan egiten duten langileen kasuan.

Kontratistak eta haren langileek AUSAren instalazioetako segurtasun-agiriak eta segurtasun-jardunbideak bete beharko dituzte.

16. Prezioa ordaintzea

Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Hilean kontratistari ordainduko zaion zenbatekoa kalkulatuko da, fakturatuko den hilean hornituak eta AUSAren adostasunarekin jasotako produktuentzat kontratistak eskainitako prezio unitarioak aplikatuz.

Hilabetea amaitu eta hamabost egun naturaletan aurkeztu beharko du faktura zehaztua kontratistak.

Prezioa 30 egun naturaleko epean ordainduko da, erakunde kontratatzaileak faktura onartu edo hari adostasuna eman ondoren, beti ere faktura dagokion epearen barruan aurkeztu bada.

Agiri honen xedetik kanpo entregatzen den ondasun edo hornidurarik ez da ordainduko; ezta ere aurrez erakunde kontratistak eskatu ez badu.

Prezioak ezin izango dira berrikusi.

17. Enpresa kontratisten erantzukizuna

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua egikaritzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea. Kalte eta galera horiek AUSAren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio direnean (agindu hori idatziz berretsiko da), AUSA izango da kalte eta galera horien erantzulea, legeek adierazitako mugen barruan.

Kontratistak behar diren neurriak hartu beharko ditu laneko arriskuen prebentzioaren arloan, segurtasunaren arloan eta langileak (propioak edo azpikontratatuak, garraiolariak barne) kontratuaren mende dauden lanen ondoriozko arrisku espezifikoetatik babestearen arloan. Kontratistaren betebeharra izango da langileek (bere langileek edo kontratistak azpikontratatutakoek, garraiolariek barne) kontratua egikaritzean jasaten dituzten kalte eta galera guztiak ordaintzea.

Kontratista izango da langile propioekin edo azpikontratatuekin dituen betebeharrak betetzearen erantzule bakarra, eta bere kontura izango dira langile horien ordainsariak eta gizarte- eta lan-arloko beste edozein gastu. AUSA ez da inola ere kontratistak bere langileekin dituen betebeharren erantzule izango.

Kontratuak indarrean dauden bitartean egiten diren horniduretan produktuetan azaldu daitezkeen akatsen arduradun enpresa kontratistak izango dira eta, edozein kasutan, produktuen kontsumoa amaitzen den arte.

Atal honetan aurreikusten dena legeak ezartzen dituen bestelako erantzukizunen kalterik gabe ulertzen da.

18. Enpresa kontratisten betebeharrak

Enpresa kontratistaren betebeharrak izango dira:

1. ABPAren 15. baldintzan aurreikusten den hemezortzi eguneko (igandeak eta jai egunak kanpo, larunbatak barne) gehieneko entrega-epea betetzea, eskaera egiten den posta elektronikoa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

2. AUSAk adierazitako unitateen biltegiratzea batez ere, segurtasun arrazoiak direla medio biltegiratze baldintza bereziak behar dituzten produktuak; hala nola, etengabe erabiltzen diren produktuak, kontratua indarrean dagoen epealdian gerta daitezkeen larrialdietarako.

3. ABPAn zehazten diren beste edozein betebehar.

SBELDaren 105 artikuluan xedatzen denaren arabera, ingurumen izaera duen baldintza berezi gisa zehazten da: sortzen diren hondakin guztien kudeaketa ingurumen-irizpideak jarraituz egin dadila, hiri-hondakinekin asimilagarri diren hondakinak modu bereizian jasoaz eta ontziak eta arriskutsuak diren hondakinen kudeaketa on bat eginez. Baldintza hau funtsezko kontratu-betebeharra da.

Enpresa kontratistak gutxienez bi aldiz hausten badu 1. zenbakian adierazten den betebeharra, AUSAk horrela nahi izanez gero kontratua ebatzi ahal izango du, BPBAko 21. baldintzan aurreikusten den modura.

Adierazitakoari gehitu behar zaio, enpresa kontratistak atal honetako 1 zenbakian adierazi den gehieneko epea betetzen ez badu, AUSAk beste enpresa batekin kontratatzeko eskubidea du, aurrez dagokion prozeduraren arabera eskaera esleituz.

19. Zehapenak

19.1. Berandutzeagatik

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen kausengatik, eskatu zaion materiala entregatzeko garaian, baldintzen agirian ezarritako gehieneko epean berandutu bada, AUSAk kontratua deuseztatzea erabaki ahal izango du, ABPAren 21. baldintzan adierazitako moduan, edo kontratua egikaritzen jarraitzea erabaki ahal izango du; bigarren kasu horretan, AUSAren alde eguneko 300 euroko zehapena sortuko da.

Kontratua egikaritzen jarraitzea aukeratuz gero ere, eta ez-betetzeak irauten duen bitartean, AUSAk edozein unetan erabaki ahal izango du kontratua deuseztatzea, aipatutako ondorioekin.

19.2. Zehapenak ordaintzea

Baldintza honetan adierazitako zehapen guztiak kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoari kenduz ordainduko dira, eta erreklamatu ahal izango da ordaindu beharreko zenbatekoa gainditzen duen zenbatekoa.

Sortutako kalteak eta galerak aurreikusitako zehapenak baino handiagoak badira, oso-osorik eskatuko dira benetan sortutako kalteak eta galerak.

20. Harrera eta berme-epea

Kontratistak eskaera bakoitzean eskatzen diren unitateak entregatuko ditu, betiere formalizatutako kontratuaren eta egindako eskaeraren baldintza zehatzen arabera, eta entregatzen den unean egiaztatuko da harrera egin dela.

Produktuak entregatzeko garaian haiek ezingo balira jaso horrela adieraziko da harrera-aktan, produktua itzuli egingo da eta kontratistari epe berri bat emango zaio sinatutako kontratuaren arabera beste hornidura bat egin dezan, AUSAk egin dion eskaeraren baldintzak jarraituz.

Produktuak AUSAren oniritziarekin jasotzen direnean, haien berme-aldian akatsik agertuko balitz enpresa kontratista izango da haien arduradun. Berme-epea bat dator kontratuaren iraupenarekin eta, edozein kasutan, produktuak erabat kontsumitzen diren arte.

Berme aldian hornitutako produktuetan akatsak daudela egiaztatzen bada AUSAk eskubidea izango du enpresa kontratistari haiek ordezkatzea eskatzeko edo, nahikoa balitz, horien konponketa eskatzeko.

Berme aldian AUSAk ikusiko balu, egindako edozein entregatan, jaso duen produkturen bat ez dela aproposa dagokion helbururako, akatsak edo gabeziak dituelako eta horiek kontratistari egotz daitezkeelarik, eta haien ordezkatzea edo konpontzea ez bada nahikoa izango nahi den helburua lortzeko, berme-epea amaitu aurretik produktua baztertu ahal izango du, ordaintzeko betebeharrik gabe eta ordainduta balego dirua errekuperatzeko eskubidearekin.

21. Kontratuak deuseztatzea

21.1. Suntsiarazteko kausak

Kontratua suntsiarazteko kausa izango dira: kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta Administrazio Baldintza Partikularren Agirian aurreikusitako edozein kausa ez betetzea.
Edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratuz gero, eta, konkurtsoaren kasuan, likidazio fasea irekiz gero, kontratua beti suntsiaraziko da. Konkurtso-deklarazioaren kasuan, eta likidazio fasea irekitzen ez den bitartean, AUSAk kontratuarekin jarraituko du, baldin eta kontratistak, haren iritziz, kontratua egikaritzeko behar diren bermeak ematen baditu.

Kontratua suntsiarazteko kasu horietako edozeinetan, eta Baldintza honetan aurreikusitako kausengatik edo legez bidezkoak diren beste edozein kausarengatik

suntsiarazten denean, suntsiarazpena automatikoki gauzatuko da. Betekizun bakarra AUSAk kontratistari erabaki horren berri ematea izango da.

Era berean, kontratistak berehala entregatu eta AUSAren esku jarri beharko ditu, hark hala eskatzen badu, AUSAk egindako eskaerari dagozkion produktuen unitateak.

AUSAk egikaritze-egoerari buruzko akta idatziko du, eta bertan zehaztu beharko dira entregatutzat eta jasotzat jotzen diren materialen unitateak, baita ez entregatutzat edo jasotzat jotzen diren unitateak ere, ez jasotzearen arrazoiak adierazita.

Bi aldeen arteko adostasunez suntsiarazi ahal izango da kontratua, baina soilik kontratistari egotz dakiokeen beste suntsiarazpen-arrazoiren bat gertatzen ez denean eta, betiere, interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratuari eustea beharrezkoa ez bada edo desegokia bada.

21.2. Suntsiarazpenaren ondorioak

Baldintza honetan aurreikusitako kausengatik, edo legez bidezkoak diren beste kausa batzuengatik, kontratua suntsitzeak eragin ditzakeen erantzukizun ekonomikoak likidatuko dira kontratua benetan suntsitu ondoren; nolanahi ere, AUSAk hornidura egikaritzen jarraitu ahal izango du.

Suntsiarazpen kasu guztietan, enpresa kontratistak benetan egin dituen hornidurengatik (AUSAren adostasunarekin jasoak izan direnak) kobratzeko eskubidea du.

Kontratua suntsiaraztearen arrazoia kontratistaren ez-betetze erruduna bada, kontratistak ordaindu beharko ditu eragindako kalteak eta galerak. Kalte-ordaina kontratistari ordaindu beharreko preziotik ordainduko da, eta dagokion erreklamazio gehigarriaren mende egongo da, prezio hori gainditzen duen zenbatekoan.

Suntsiarazpena bi aldeen adostasunez gertatzen denean, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunez hitzartutakora egokituko dira.

añarbe urak aguas

ERANSKINAK

1. eranskina

PARTE HARTZEKO ESKAERA

…… jaunak/andreak, helbidea ……-(e)n duenak eta NAN …… duenak, bere izenean / ……-(r)en ordezkaritzan —helbidea ……-(e)n duena eta IFZ …… duena—, jarduteko ahalmen osoz, eta Petritegiko Edateko Uren Araztegiko eta Loiolako Hondakin Uren Araztegiko laborategietarako materiala hornitzeko esparru-akordioa zuzentzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Agiria eta Preskripzio Teknikoen Agiria ezagututa, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Lote hau edo hauek hornitzeko esparru-akordioan onar dezaten eskatzen duela:

Lotea	(1)	Xedea
1		Deltalab
2		Filter-Lab
3		BRAND
4		Bürkle
5		Eppendorf
6		HACH
7		Inorganic Ventures
8		Merck
9		Millipore
10		Panreac
11		Pobel
12		RADIOMETER
13		Reagecon
14		Supelco
15		VWR (R.D.)
16		Azlon
17		bioMérieux
18		Microkit
19		AccuStandard
20		Dr. Ehrenstorfer
21		Mettler Toledo
22		Soria-Greiner
23		Thermo Scientific
24		Hamilton
25		Crison
26		Agilent
27		Analytical jena
28		Celea
20		Difco
30		Gerstel
31		Idexx
32		Metrohm

33		MLE
34		Oxoid
35		Romil
36		FOSS TECATOR
37		Fluka
38		Absolute Standards
39		SPEXertificate®
40		Sterilin
41		Vidra-foc
42		VWR PROLABO
43		TESTO
44		Pyrex
45		ISOSTANDARDS
46		Scharlau
47		Chromacol
48		HANNA
49		ISC science
50		JASCO
51		PSA
52		Pronadisa
53		Starna
54		Biotage
55		Wellington Laboratories
56		Sigma-Aldrich

……, 2022ko ……aren …(a)

Sin.: ……

2. eranskina

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

…… jaunak/andreak, helbidea ……..……-(e)n duenak eta NAN …… duenak, bere izenean / ……-(r)en ordezkaritzan —helbidea ……-(e)n duena eta IFZ …… duena—, jarduteko ahalmen osoz, eta Petritegiko Edateko Uren Araztegiko eta Loiolako Hondakin Uren Araztegiko laborategietarako materiala hornitzeko esparru-akordioa zuzentzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Agiria eta Preskripzio Teknikoen Agiria ezagututa, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Lehenik.- Eskaintza hau aurkezten den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen eraginpean —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora—.

Bigarren.- Berariaz onartzen duela, esleipendun izanez gero, erakunde kontratugileak gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuen ondoriozko datu guztiei, prozesua amaitu arte.

……, 2022ko ……aren …(a)

Sin.: ……

3. eranskina

ADIERAZPENEN NOTARIO-AKTAREN EREDUA, LIZITATZAILEAK BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN OINARRITU NAHI BADU, ESPARRU-AKORDIOAN ONARTZEKO ESKATUTAKO KAUDIMENA EGIAZTATZEKO

…… jaunak/andreak, helbidea ……..……-(e)n duenak eta NAN …… duenak, ……-(r)en legezko ordezkari gisa —helbidea ……-(e)n duena eta IFZ …… duena—, adierazten du esparru-akordioaren lizitazioaren baldintzak irismen osoan ezagutzen dituela (…… lotea edo loteak hornitzeko). Lizitazio horretan …….. lizitatzaileak [enpresa lizitatzailearen izena] lehiatzen du, eta adierazten du eskatzen zaion kaudimena duela —eransten den dokumentuan egiaztatzen den bezala—, eta aditzera ematen du, esleipendun suertatuz gero, borondate ezeztaezina duela aipatutako lizitatzailearen esku jartzeko kontratua egikaritzeko beharrezko baliabide guztiak, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuz; Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.k berariaz baimendu beharko du hura ordeztea edo aldatzea.

Idazki hau Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.ri aurkezteak konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu, baldin eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

……, 2022ko ……aren …(a)

Sin.: ……

4. Eranskina

LOTE BAKOITZAREN LABORATEGIKO MATERIALEN UNITATEAK